

Postbizitza

Angel Gallo Fernandez

Julene Azpeitia
37. ipuin lehiaketa
2024 Zumaia



Postbizitza

Angel Gallo Fernandez

Julene Azpeitia 37. ipuin lehiaketa

2024

Bigarren saria

2024ko azaroan digitalizatutako ipuina.

© Angel Gallo Fernandez (ipuinarena)

© Zumaiako Udala (argitalpen honena)

—Gabon entzuleok, eta milesker beste behin gure sintonia aukeratzearren. Sareek eta streaming-ak dena irensten duten garaiotan, zinez eskertzen dizuegu beste aro batekoa dirudien bide hau aukeratu izana.

Irekierako musika sartu.

—Gaurkoan gonbidatu bereziak ditugu gure artean. Esango nuke egun aurki daitezkeen pertsonarik garrantzitsuenak direla gau honetan mikrofono aurrean izango ditugun bi doktore hauek. Beraiei ere eskerrak eman nahi dizkiegu, batez ere aurrez aurre etortzea erabaki dutelako. Eskerrik asko, Kira eta Loem doktoreak.

—Eskerrik asko zuri.

—Bai, eskerrak zuri aukera hau eskaintzearren.

—Agian izenek ez dizute ezer askorik esango, entzule, eta nik, ordea, pertsona nabarmenak direla esan berri dut. Zuzenagoa litzateke, beraz, bi hauek pertsona ez garrantzitsuenen artean garrantzitsuenak direla esatea. Ez dituzte kirolariak bezainbeste lerroburu bete, baina gure bizitza aldatu dezakeen kontuetan aparteko zeresana izan dute... eta oraindik badute! Testuingurua azalduko dut, bi doktoreen garrantzia uler dezagun. Kira, Loem, mesedez zuzendu nazazue okerrekorik esango banu.

—Bai, lasai.

—Ziur naiz guk baino hobeto azalduko duzula.

Musika teknologiko lasaia eta misteriotsua sartu.

—Ondo baino hobeto dakizunez, entzule, egunotan lege berri garrantzitsu baten inguruko epaiketa egiten ari dira. Lege PostFisikoa deitu izan zaio, askok marketin jokaldi bikaintzat jo duten mugimendua, izen horrek ez duelako ondo adierazten benetan eztabaidan dagoena. Legeak aurrerakuntza teknologiko bat jartzen du zalantzan, edota honen aplikazioa erregulatzea du asmo, behintzat. Aurrerakuntza teknologiko horri deitzen diote batzuek PostBizitza, horretan datza-eta: garatu berria den teknologiari esker, gure oroitzapen guztiak memoria

elektroniko batera "jai" ditzakegu, fitxategi bat balira bezala; gero, gure DNAtik hazitako gorputz batean ezarri ditzakegu, eta horrela gure pertsonaren kopia perfektua lor dezakegu. Bepiztearen moduko zerbait da, edota bizitza luzatzearen parekoa. Pertsona bakoitzak modu ezberdin batean uler dezake, baina muina hori da. Zuzen al nago?

—Zenit, barkatzen badidazu eta Kira doktoreak baimena ematen badit, gauza pare bat argitu nahiko nituzke.

—Kira doktorea, zer diozu?

—Aurrera.

—Loem doktoreak zuzenduko nau, orduan! Baina barka nazazu, Loem doktorea, zure argibideak entzun aurretik, argibideak nork ematen dituen azaldu behar dut. Entzule, orain hitz egingo duena Loem doktorea duzue, Betirako Bizi enpresako zientifikoa eta baita haien abokatua ere. Betirako Bizi, BB moduan ezaguna, osasun arloan lanean urte asko daramatzen enpresa da, eta beraiek garatu dute PostBizitza izeneko teknologia edo prozesua. Eta orain bai, kontaguztu, Loem doktorea, edo hobe esanda zuzen itzazu nire akatsak.

—Lasai, Zenit, horretarako gaude hemen. Eta dei nazazu Loem, mesedez. Begira, teknologia ondo azaldu duzun arren, aplikazio bakar batean zentratu zara eta hori ez da zuzena. Are gehiago, guk ez dugu esateko ezer klonatutako gorputz batean oroitzapenak ezartzeari buruz: guk oroitzapenak digitalki gordetzeko eskubidea defendatu nahi dugu, besterik ez. Hori da gure enpresak egiten duena, eta ez da besterik. Guk ez ditugu klonazioak burutzen, gure arloa beste bat da. Izan ere, egia da pertsona baten oroitzapenak kanpo-memoria batean gordetzeko teknologia garatu dugula, baina gure teknologiak hainbat aplikazio izan ditzake, ez bakarrik aipatu duzun hori: Alzheimer gaixotasuna duten pertsonen oroitzapenak ez galtzen lagundu diezaieke, eta beti memoria guztia eskura izaten; burmuineko ebakuntza kritiko bat jasan behar duten pertsonen tankerako laguntza mota eskaini ahal die, ebakuntza egiten den bitartean bere oroitzapenak gordez eta ebakuntzan zerbait gaizki joanez gero bueltan ezarriz; istripu baten ondorioz memoria galtzea oso ohikoa da, eta teknologia honek galdutako oroimena berreskuratzen lagunduko luke. Milaka aplikazio izango ditu gure teknologiak, denak onuratsuak gizakiarentzat. Klonazioarena aukera bat da, eta ez da epaiketan aztertzen dena, edo ez nire enpresak bilatzen duena.

—Baina onartuko duzu berriro bizitzaren kontuak zalantzak sor ditzakeela.

—Barkatu, baina ez da “berriro” bizitzea: azaldu dudan moduan, zure bizitzarekin jarraitzea baino ez da. Hanka edota besoetan protesiak jarri baditzakegu, zergatik ez memorian?

—Arrazoi duzu, eta barkatu ni bezalako pertsona trakets baten akatsak! Ulertuko duzu, dena den, gure entzuleen artean ardura egotea. Aplikazio ez horren onuratsuetarako ere erabili daiteke teknologia...

—Autoak debekatuko ditugu norbaitek atentaturen bat egiteko erabil ditzakeelako? Ez, noski. Edota konparaketa egiten uzten badidazue, pentsa kantzerra senda dezakeen pilula bat aurkitzen dugula; norbaitek pilula gehiegi hartu eta bere buruaz beste egiten badu, ez dugu horregatik kantzerraren aurkako sendabidea baztertuko, ezta? Ba gurean gauza bera: teknologia honek gure bizitza beste maila batera eramán dezake, ez ditzagun trabak jarri. Gure ustez teknologia eta haren atzean dagoen zientzia epaitu beharko lirateke, eta ez usteak, iritziak, gerta daitezkeenak, etorkizun distopikoak eta tankerakoak. Objektibitatea behar dugu; hortik aurrerakoa, pentsamenduaren polizia bihurtzearen parekoa da.

—Ez du ikuspuntu berdina gure gaurko beste gonbidatuak. Kira doktoreak Osasun Sail Publikoan lanean eman ditu azken 12 urteak, oker ez banago, eta Betirako Bizi enpresaren aurkikuntzaren kontra egiten duen salaketa popularraren buru da. Bera ere abokatua dugu, eta gaur amaitu den epaiketan PostBizitzaren aurkako salaketa aurkeztu du. Kontaiguzu, Kira doktorea, zergatik zaude, edo zergatik zaudete, aurrerakuntza honen aurka?

—Kaixo Zenit, eta milesker aukera hau eskaintzearren. Bide batez, dei nazazu Kira; doktore kontua titulua baino ez da...

—Ados! Doktorerik ez orduan gaurkoan gurean!

—Hasteko, nik ere zuzenketa txiki bat egingo dizut: epaiketa ez da amaitu. Atzo aurkeztu genituen azken alegazioak eta laburpenak, eta orain epaileek informazio guztia aztertu behar dute. Gero erreklamazioak etorriko dira... Tira, oraindik bide luzea geratzen da!

—Justiziaren bideak ez dira errazak!

—Hori da! Baina bai justuak, espero.

—Eta zer litzateke justua kasu honetan, zure ustez?

—Agerikoa da: PostBizitza debekatzea.

—Oso ziur diozu diozuna. Ondo errotutako arrazoiak izango dituzu, ezta?

—Bai, noski. Ederra abokatua bere zioetan sinisten ez duen hori!

—Arrazoi, arrazoi! Kontaiguzu ba: zergatik debekatu nahi duzue PostBizitza?

—Oso kontu sinplea da. Loem doktoreak azaldu dizkigun argudioetan akats bat dago, edota puntu bat azaltzea falta da: gu ez gara gure oroitzapenak. Gure memoria guztiak gordetzeko gai izango bagina, eta beste gorputz batean ezarriko bagenu ere, pertsona berri hori ez litzateke gu izango. Gu gure memoria eta gure gorputza gara. Gure hezurak hazten, apurtzen, soldatzen, zahartzen, sendotzen sentitu izan ditugu; gure gorputza atontzen duten orbainak guk egin ditugu; gure entzumena, dastamena, ukimena bakanak dira. Eta ez da gauza fisiko bat soilik: bizitakoak oroitu arren, gu gure erabakiak ere bagara. Zure oroitzapenak izan ditzakeen izaki hori ez da zu izango, esandakoa baizik: zure oroitzapenak dituen izaki bat izango da, besterik ez. Gezurra da "betirako bizitzearen" kontua, teknika berri honek izaki artifizial bat baino ez du ekarriko; eta guk badakigu zelan sortzen diren gizakiak. Ez diogu onurarik ikusten gizaki artifizialak sortzeari, gizaki naturalak sortu beharrean. Gezurrezkoa den "betirako bizitzea" kontzeptu horrek arazoak baino ez dizkio ekarriko gizarteari. Pentsa ustez inor ez dela hiltzen... Ez dakit horren ondorioak ulertzeko prest ote gauden. Belaunaldi gutxiren buruan, gizaki natural guztiak hilko ginateke, eta gure lekua makina batek hartuko luke, gure oroitzapenak dituzten beste izaki batzuk hain zuzen ere. Gizakiaren azkena izango litzateke!

—Oso ondo! Entzun ditugu bi argudioak! Epaileak erabakiko du, bai, baina bi iritziak gertutik entzuteak asko laguntzen du gertatutakoa ulertzen! Izan ere, epaileen kontuak maiz ez dira guregana, kaleko biztanle arruntengana, modu ulergarrian heltzen, eta hori da gure programa xumeak lortu nahi duena. Orain geldialdi bat egingo dugu publizitatearentzat, laster gara bueltan. Ez zaitezte joan, itzuleran zalantza ugari argituko ditugu-eta!

Irteera musika.

VTOL iragarkia.

Begi bionikoen iragarkia.

Etxebizitza modularren iragarkia.

Sarrera musika.

—Bueltan gara! Oraindik kontu asko ditugu azaltzeko... Loem, kontaguzu: PostBizitza hilezkortasunaren lehen urratsa dela uste duzue?

—Lehen urratsa izan daiteke... edo ez. Merkatuak esango du orain zer egin teknologiarekin. Guk ez dugu ezer esaten, gauza asko hobetuko dituen teknologia baino ez dugu onartu nahi.

—Ui, agerikoa da erabiltzen dituzuen hitzak kontuz aukeratzen dituzula...

—Egia baino ez dut esaten. Dena den, arrazoi duzu, epaileak bere sententzia eman arte ezin gehiegi esan.

—Baina zuk, Kira, sutsuki defendatu berri duzu zure ustez gizakien azkena ekarriko duela honek...

—Bai, noski, eta behar bezainbestetan defendatuko dut. Onar dezagun: PostBizitzaren helburu nagusia klonazio bitartez gorputz berri bat lortzea da. Beste aplikazioak izan ditzakeela, eta asko onuratsuak izan daitezkeela? Bai, noski, eta bonba nuklearrek ere izan ditzakete aplikazio onuratsuak, baina denok dakigu zertarako sortu ziren. Kasura itzuliz, agerikoa da klon horiek makina modukoak direla. Kopiatutako memoriak ezartzen dizkiegu gure modukoak izan daitezen... baina ez gara gu! Pentsa ezazu momentu batez, Zenit, zure oroitzapen guztiak, eta soilik oroitzapenak, ordenagailu bati jartzen dizkiotela. Akaso ordenagailua zu izango ote zinen? Ez, ezta? Ba klon bati jarritz gero, gauza bera: ez dago ezberdintasunik robot baten eta halako baten artean...

Hartzen duzun erabaki bakoitza zara zu. Eta bi pertsonak, oroitzapen berdinak izan arren edota baita elkarren artean konektatuta egongo balira ere, bi erabaki ezberdin hartuko dituzte beti. Are gehiago, zuk zeuk, egoera berdinen aurrean, lau aldiz erabaki behar baduzu seguruenik lau erabaki ezberdin hartuko dituzu. Edo erabaki berdina, baina sentimendu ezberdinekin. Horrek egiten zaitu zu. Horrek egiten zaitu bakan. Zure klon bat ez zara zu izango.

—Barkatu, Kira, baina guk ez dugu inoiz halakorik esan. Klonak ez ditugu aipatu...

—Loem, mesedez! Denok ikusi dugu esperimentuak egin dituzuela klonekin!

—Baina guk ez ditugu klonak garatu.

—Ados, beste modu batean esango dut: klonak erabiltzen dituzten esperimentuetan parte hartu duzue. Emaiza berdina da: esperimentu horretan, zuek edo zuen kideek gorputz bat sortzen duzue espresuki memoria elektronikoa bat jasotzeko, pertsonaren DNAtik abiatuta! Zer da hori, bada?

—Baina beste edonon ere jar dezakegu.

—Bada ez dakit zer den hobe...

—Guk ez dugu eztabaidan jartzen klonazioaren inguruko ezer. Inoiz ez dugu klonazioa aipatu eta, ondo dakizun moduan, epailetan aipamena agertu duzuen bakoitzean argudioa ukatua izan da.

—Barkatu zuen artean sartzeagatik, baina zure azken hitzetatik ondoriozta dezaket euskarri fisiko gabe ere funtzionatuko lukeela PostBizitzak, Loem? “Beste edonon ere jar dezakegu” esan duzu: hau da, gorputzik gabeko gizakiak izango genituzke?

—Aukera bat da. Esan bezala, guk soilik teknologia aurkezten dugu; erabilpenak, Gizateriak erabakiko ditu.

—“Guk soilik gizakia hil dezakeen birus bat sortu dugu, hortik aurrerakoak ez dira gure kontuak” esatearen parekoa da!

—Kira, hori populismo hutsa da. Gainera abokatua zara eta ondo dakizu legalki eta objektiboki hala dela. Hori da epaileek erabaki behar dutena.

—Loem, kasua oso argia da: zure memoria guztiak disko gogor batera “jaisten” badituzu eta ordenagailu batean ezarri, bi “zu” existituko lirateke? Zu eta ordenagailua, bi pertsona izango zinatekete? Ez, noski, ordenagailuaren arrazoiketak ez direlako zure garunaren arrazoiketak. Ez zarete gauza bera. Oroitzapenak gordetzea eta pertsona berri bat sortzea gauza bera ez diren moduan. Akaso ordenagailuak zuk adina eskubide izango lituzke, edo?

—Oso interesgarria hau guztia! Baina utzidazue momentutxo batez gure entzuleen mezuei jaramon egiten; zenbaitek zuzenean entzuten gaituzte, eta beraien iritzia helarazten dizkigute. Eskola zaharreko entzule hauek maite ditugu! Entzun arren beraiak diotena.

Lehen mezua sartu.

“Kaixo, Zenit. Oso programa interesgarria! Nire bizitzaren azken urteetan nago, eta nik nahiko nituzke nire oroitzapenak gorde! Ez dakit ni izango ote naizen edo nor izango ote nintzakeen kasu horretan, baina teknologia berri hori probatu nahiko nuke! Ez dut ezer galtzen eta, gezurrik ez dizut esango, ez dut hil nahi! Are gehiago, hiltzearen beldur naiz!”

—Une honetan Loem doktorea irribarretsu dagoela esan ahal dizuet! Tira, badirudi teknologia honek badituela aldekoak! Entzun dezagun beste mezu bat.

Bigarren mezua sartu.

“Aupa, talde! Niri sekulako beldurra ematen dit horrek! Nire oroitzapenak erabili beste pertsona bat sortzeko?! Aizu, seme-alabak izan itzazue eta listo! Zuek diozuenaz ez da berpiztea, ez bitza luzatzea, soilik zure memoriak beste bati pasatzea. Frankenstein moderno bat sortuko duzue! Utz iezaiozue Jainkoaren papera egiteari!”

—Hara... Badirudi denetariko entzuleak ditugula! Kira doktoreak baiezkoa egiten du buruarekin oraingoan! Beste mezu bat ere badugula esaten didate; entzun dezagun.

Hirugarren mezua sartu.

“Kaixo. Bi mezu dauzkat zuentzat. Gehiago ere izango nituzke, baina suposa dezaket ez didazuela programa guztia eskainiko. Lehena hau da: mezu honekin batera oraintxe bertan atera ditudan bi argazki dituzue. Mesedez, ireki itzazue. Esan bezala, zuek hizketan ari zareten bitartean ateratako argazkiak dira. Fitxategien metadatuak egiaztatu ditzakezue gezurrik ez diodala konprobatzeko. Argazkiak ikusi eta gero, arren eskatzen dizuet, entzun ezazue nire bigarren mezua.”

—Hara! Entzule interaktibo bat dugu! Irrati-programak zuzenean egitearen xarma da hau! Onartu behar hau ez dela oso ohikoa baina, tira, nire jakin-mina piztu duzu... Ea ba, ikus ditzagun argazki horiek. Mesedez, hemen proiektatuko dizkiguzue? Eskerrik asko.

Musika elektroniko lasai baina misterioetsua sartu.

Teklatu soinuak sartu, argazkiak irekitzearen sentsazioa transmititzeko.

Abiadura klip laburrak sartu, irekitzea simulatzeko.

—Hemen ditugu, eta... zer da hau? Ez dut oso ondo ulertzen. Ea gonbidatuek laguntzen diguten...

—Hau ezin da onartu! Ondo dakizun moduan, ez da legala argazki pribatuak hemen erabiltzea! Hau ez da adostu genuena!

—Loem, zuk ez zenuke...?

—Entzuleok, ikusten dudana azalduko dizuet, erabakiko dugu aurrerago ea gure saioarekin batera eskegi behar ditugun ala ez. Bi argazki hauetan Loem doktorea agertzen da; batean etxean agertzen da eta bestea kalean, erosketa batzuk eskutan. Entzulearen esanetan, oraintxe bertan ateratakoak dira. Zer esan nahi du...?

—Nire pribatutasuna urratzen dute argazki horiek! Hau ez da onargarria!

—Zenit, beste behingoz, argazkiak uneotan ateratakoak direla dio mezuak. Teknikari batek hori aztertu badezake, eskatuiozu, mesedez. Loem, ez zenuke...?

—Hori gezurra da! Auskalo noizkoak diren argazki horiek! Gure mezuari kalte egiteko mezu bat baino ez da! Ez du sinesgarritasunik! Gezur hutsa da hori!

—Ea, ea, lasai gaitezen... Kira, Loem, argazki honek esan nahi duena zer da zehatz-mehatz?

—Agerikoa da! Loem, multibizitzara pasa zara?!? Baina hori...?!?

—Kira, multibizitza esan al duzu? Ez dakit gure entzule guztiek hitza noizbait entzun ote duten...

—Zure oroitzapenak kopia eta beste gorputz batean ezartzea da multibizitza. Loemek bere oroitzapenak bikoiztu eta klonatutako gorputzetan sartu ditu! Ikusten duzu? PostBizitzaren asmatzaileek ere ez badute garbi jokutzen, zer espero dezakegu hau mundu guztiari irekitzen badiogu?!? PostBizitza debekatu behar dugu!

—Horrek ez du ezer frogatzen, Kira! Ezertxo ere ez! Metadatuaren kontua ere gezur hutsa dela ondo baino hobeto dakizu. Argazki batzuk? Auskalo nork bidalitakoak diren; hori da jakin beharrekoa, ea ez ote dituen Kiraren taldeko norbaitek bidali gure mezuari kalte egiteko.

—Loem, mesedez! Halakorik pentsatzea ere!!

—Ea, ea, lasai gaitezen... Arrazoi du Loem doktoreak: agian broma hutsa

dira. Froga gehiago behar ditugu ondorioak ateratzen hasi aurretik. Baina gure teknikariek fitxategiak aztertzen dituzten bitartean, entzun dezagun mesedez entzule honek bidalitako bigarren mezua, agian dena argituko du-eta.

—Baina...!!!

Mikroa kendu Loemi.

Laugarren mezua sartu.

“Mezu hau publikatzen baduzue, argitaratzeko unean bertan Loem doktorearen kopietako bati kolpe bat emango diot; ondorioak zuen esku uzten ditut.”

—Mesedez, biolentziarik ez dugu...

—Arg!

—Loem, ondo al zaude?

—Bai, bai, lasai, ez da ezer...

—Baina zer da gertatu dena...?

—Zenit, mezua! Froga dugu gure aurrean! Loemek gorputz batean baino gehiagotan ezarri ditu bere oroitzapenak, eta beraien artean lotuta daude. Inork ez daki hori posible ote den, eta hori baimentzen duen legea ez da onartu oraindik! Debekatuta dago halakoekin esperimentatzea!! PostBizitza onartu aurretik, esperimentuak egiten ari da! Bere gorputzarekin ari da probak egiten! Poliziar deitu beharko genioke, hau onartezina da! Loem, ezin duzu...!

—Ezin dut?

—Ea, ea, lasai gaitez...

—Ezin dudala?

—Loem, mesedez, eser zaitetz...

—Nor zara zu eseri behar dudala esateko? Nor, ezin dudana zer den esateko? Eta zer da ezin dudana? Nire oroitzapenekin zer egin erabaki? Nire gorputzarekin zer egin erabaki? Nork erabaki behar du hori bada, gobernuak? 4 urtean behin aldatzen ditugun agintariek? Kodigo legala deritzogun horrek? Esperientzia bitxia da hau, bai, baina ez nuke ezergatik aldatuko. Gehiago esango dizut: laster mundu guztiak nahi izango du hau. Zergatik izan gorputz

bakarra 4 izan ditzakezunean? Zergatik ez bizi 4 bizitza aldi berean? Zergatik ez sentitu 4 aldiz gehiago? Eta lau diodanean, zergatik ez 10? 100? Zergatik ez betirako bizi?

—Baina Loem, beste pertsona horiek ez lirateke zu izango! Ez al duzu ulertzen?!

—Benetan dakizu lau pertsona horietako zeinekin ari zaren hitz egiten orain? Nor den aurrean duzun hau?

—Ni...

—Ezin banauzu beste batengandik bereizi, benetan al naiz beste pertsona bat? Itxura berdina badut, pentsamendu eta oroitzapen berdinak baditut, benetan esan dezakezu ez naizela ni?

—B-baina...

—Eta gorputzak ez badira berdinak, baina pentsamenduak eta sentimenduak bai? Itxura ezberdina izateagatik esango al zenuke ez naizela pertsona berbera? Arrazakeria mota berri bat sortuko zenuke?

—Gure sistemak ezin du onartu...!

—Berdin dio epaileek zer dioten. Aurrean duzu behar duzun froga: PostBizitza erreal da, eta denok nahi izango dugu. Baita zuk ere. Ondo baino hobeto dakizu!

Mikroak itxi. Isilunea mantendu.

Musikarik ez sartu, bestela gezurrezkoa dela emango du.

Arnasa sakonen soinuak sartu.

Zeniten mikroa aktibatu.

—Entzuleok, ez geunden honetarako prest. Ez dakit zer esan eta ez dakit zer pentsa. Agian programa hemen eten beharko genuke... Milaka mezu ari gara jasotzen; sentitzen dugu, entzule, ezin horrenbeste iritzi hemen agertu. Ez dakit beharko genukeen, ezta. Hau handiegia izan daiteke gure programarentzat... Barkatu, dei garrantzitsu bat jaso dugula esan berri didate. Bai... Bai? Ados. Adi, entzule, benetan garrantzitsua omen da orain entzungo duguna. Teknikariek esaten didate jatorria frogatu daitekeela, eta kontatzeko duen horrek merezi duela. Ea ba, entzun dezagun, zer pentsa erabakitzen dugun bitartean...

Dei telefonikoa sartu.

“Kaixo, Zenit. Aspalditik entzuten zaitut, zure programa benetan dut atsegin! Ez dut inoiz mezurik bidali, baina gaur entzun ditugunek harritu naute! Nire bizitzako gauza bat kontatu nahiko nizuke, gertatzen ari dena azaltzeko balio dezakeena: nik Loem doktorea ezagutu nuen gaztea zenean, bere klasekide izan nintzen. Epaiketako argazkiak bilatu ditut, baita bere enpresakoak ere, eta zalantzarik ez dut, bera da. Baina... Baina... Hori duela 70 urte izan zen! 90 urte daukat nik, eta argazkietan agertzen dena askoz gazteagoa da! Eta Loem doktorea auto istripu batean hil zen duela 15 urte...”

—Adi! Argi! Hau bai ez genuela espero! Loem doktore berberaz ari al da gure entzulea? Aurrean dudan Loem doktoreak irribarre egiten du behintzat! Kira, Kira, lasai egon zaitez... Bai, bai, oraintxe izango duzu hitz egiteko txanda, baina lehenik eta behin amai dezagun deia, badirudi zerbait gehiago duela esateko gure entzuleak...

“Nik ezagutu nuen Loem doktoreak Kira izeneko neska-laguna zuen. Klase berdinean aritzen ziren... Ez dakit pertsona berberak ote diren, baina sareetan jarri dituzuen argazkietan oso antzekoak ematen dute... Hori baino ez nuen partekatu nahi. Eskerrik asko programagatik, Zenit, munduan gertatzen ari diren aldaketak ulertzeko ezinbestekoa zaitut. Eutsi!”

Mikrofonoak itxi. Isiltasuna mantendu. 4 segundo pasatu behar dira soinua itzuli aurretik.

Loem eta Kiraren mikroak itzalita.

Zeniten mikrofonoa soilik piztu.

—Entzule, hemen amaitzen da gure programa. Ulertuko duzue, ezinezkoa zaigu jarraitzea. Agian legez kanpoko ekintzen testigu izan gara, eta hemendik aurrerakoak ezin dira gure esku egon, zenbait teknologia edozeinen eskutan egon ezin daitekeen moduan. Ikasgai ederra gaurkoa. Eta hau ez da momentua eztabaidatzeko ea nork erabakitzen duen noren eskutan egon daitekeen informazioa. Orain datu asko dugu baieztatzeko, eta ez dugu besterik esan nahi datu hauek egiazkoak ote diren jakin arte. Edozein modutan, beste behingoz agerian geratu da inor ez dagoela bekatutik salbu.

Irteerako musika.

—Milesker hor egotearren eta, gogoratu, ez sinetsi egia. Gabon.